

## Jose Morcillo izango da berriz ere PSE-EEko kandidatu Hernaniko alkatetzarako


■ Morcillo 1979 ezkerro da Hernanin zinegotzi eta aurreko bi legislaturetan Gobernu Taldean aritu zen lanean Industria eta Etxebizitza sailetan eta Ongintzako lehendakari postuan.

HAUTESKUNDEAK gainean dira eta Hernanin PSE-EE izan da alkatetzarako kandidatu aurkeztu duen aurreko alderdia. Partidu Sozialistak berriz ere kandidatu bera aurkeztuko du eta Jose Morcillo izango da PSE-EEko alkategaia. Morcillok Kronikari adierazi dienez, alderdiak zerrendaburu izaten jarraitzeko eskatu dio eta berak onartu egin du.

Aurrera begira, Hernaniko PSE-EEK bere kandidatoa, zerrenda eta hauteskunde programa aurkezteko ekitaldi publikoa egingo du, oraindik eguna zehaztu gabe badago ere.

litikari beteranoetako bat da. 1979 izan zen aurreko zinegotzi Hernaniko Udaltaldean eta geroztik 24 urteotan etengabe bete du kargu publiko hori. 1999an, Eudetik 36 alkate eta zinegotzi omendu zituen kargu publikoan 20 urte betetzeagatik eta Jose Morcillo izan zen horietako bat.

Zinegotzi daramazkien 24 urteetatik, 8 Gobernu Taldean egin ditu Morcillok, orain aurreko bi legislaturetan. Lehenbizikoan, Industria eta Etxebizitza Sailak gestionatu zituen, eta bigarrenan Ongintza Patronatuko lehendakari izan zen.



PSE-EEK bi zinegotzi ditu gaur egun eta Jose Morcillo da buru.

**24 urte zinegotzi eta 8 urte Gobernu Taldean**  
Jose Morcillo Hernaniko po-

**Ekitaldia igandean**  
PSE-EEK Gipuzkoako kandidato guztiak aurkeztuko

ditu igande honetan, eta horretarako ekitaldia antolatu du Miramar Jauregian, igande goizean 11:30etan. □

## 'Ave Maria' eta 'Politena' parkeak zabalik gaur

AVE Maria eta Politena parkeak ikusteko aukera dago gaur eta parkeen inguruko azalpenak, eta dau den proiektuak ere emango dituzte. Ave Maria parkean 11:00etan izango da bixita gidatua. Ave Maria parkea Latsunbe Berrin dago, rotonda ondoan. Politena parkean, berriz, 12:30etan da bixita gidatua. Parkea Floridako frontoi ondoan dago. Udalak dei egin du herriko bi parke hauen berri jakin nahi dutenak azaltzeko. □

## EGUNKARIA ITXITA

### Aldarrikapen eta eskerroneko ekitaldia

EGUNKARIAREN Aldeko Batzordeak herritarrei eskerrak emateko ekitaldia antolatu du gaurko. Batzordeak hernaniarrei eskerrak eman nahi dizkie euskerak eta euskerazko komunikabideek jaso dituzte erasoan aurrean emandako babesagatik, eta Batzordeak eskatu die babes hori ematen jarraitzeko aurrerantzean ere.

Ekitaldia arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta aurrena bizikleta martxa egingo da auzoetan barrena. 18:00etan, Musika Eskolako txistulari eta dultzaineroek girotuko dute festa. 19:00etan, aldarrikapen festa: musika, dantza, kantua eta bertsoak izango dira Plaza Berrian: Ttarla dantza taldea, Kantuz eta Ozenki abesbatzak, Oreka Tx txalapartariak, Ansa Ahizpa abeslariak eta Iraulioko bertsolariak. 20:00etan, ekitaldia egingo da euskeraren munduan eraso jaso dutenekin elkartzuna adierazteko. Besteak beste, Pello Zubiariak hitz egingo du.

### Okupazioaz hitzaldia

ATE-Joka taldea okupazioari buruzko hitzaldia antolatu du gaurko Andragoton, 16:30etan. Bukeraren klase praktikoa emango dute. Aurretik, goizean, 11:00etan mural margotzea egingo da plazan. □



Zubi berriko lehenengo biga jartzen, ostegun goizean.

**Ibaiondo eta Florida elkartuko dituen zubiko lehen bigak jarri dituzte.** Ibaiondo poligonoa eta Floridako poligonoa elkartuko dituen zubia dezente aurreratua dago dagoeneko. Ibai gaineko zapatak eginak daude eta ostegunean jarri zituzten lehenengo biga. Zubiak 16 biga daramazki, 8 alde banatarat. Zubi berriak, bi poligonoak elkartzeaz gain, herri barruko trafikoa arintzeko erremedioa izan nahi du eta bariante berrira irtetzeko bidea ere bai, poligonoetako kamioiak Zinkoeneatik pasa gabe. □

 **Antziola-Motor**  
Salmenta eta tailer zerbitzua

**ford Tourneo Connect**

**Gogortasunaren forma berria**

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

**OIALUME BILTOKIA.**

Igande eta jaiegunetan dantzaldia, 19,30etatik  
**Bihar igandea:**  
**TRAKETS eta DJ ALAIN**  
OIALUME BILTOKIA

Oialume auzoa  
943 55 29 38

**Telemar** Itxastele, S.L.

**Movistar Activa**  
Hartu eta hitzegin

**46 euro deietan**

Pack Activa 135,95 euro (46 euro deietan)

Estrena plana 89 eurotik + 30 euro erretegia doain

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60

## ■ FUTBOLA

### Berio-Hernani gaur

HERNANIKO Gorengo taldeak Donostian jokatu du gaur, berriz ere partidu zaila eta garratzia haundikoa. Berio saiklapeneko lehen postuetan da eta Hernani berriz, mailari eusteko burrukan. Zazpi partidu falta dira liga bukatzeko eta dena eman beharra dauka Hernanik Gorengo mailari eutsi nahi badio. Partidua arratsaldeko 15:30etan da Berion, Donostian. □

## ■ TXIRRINDULARITZA

### Elgoibarren eta Irunen

KAUKUKO kadeteek Elgoibarren dute karrera gaur, eta infantil eta alebinek Irunen. □

## ■ ERRUGBIA

### Jubenilek 3-4 postua jokatu dute gaur

HERNANIKO jubenilak Euskadiko ligan finaletik kanpora gelditu dira. Gaur 3-4 garren postua jokatu dute Ordiziaren kontra, Zarauzko Asti zelaian.

Bestalde nagusiak liga bukatu dute eta bihar kopako partidu dute Landaren. Sestaoren kontra neurtuko dituzte indarrak, goizeko 11:00etan. □

## ■ ATLETISMOA

### Infantilak, Tolosan

GAUR Gipuzkoako txapelketak dira infantiletan eta CDHko atletak han izango dira. □

## ■ PELOTA

### Erdozio-Arregi Udaberri Txapelketako finalean

UDABERRI Txapelketako finala jokatu dute gaur Xabi Erdozio eta Aritz Arregik Elgoibarko Lagunak taldearen kontra. Bikote hernaniarra kadeteen bigarren mailan ari da jokatu eta txapelketa bikaina eginda azken muturreraino iritsi dira. Finala Oñatin da, gaur arratsaldeko 16:30etan. □

## ■ ZINEA BITERIN

### 'Mortadelo y Filemón'

GAUR *Mortadelo y Filemón* pelikula botako dute Biterin. 17:00-19:30-22:30. □

## KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				PELOTA			
Taldeak	Non	Noiz		Taldeak	Non	Noiz	
Goren.	Berio-Hernani	Berio	Gaur 15:30	Hernaniko Pala Txapelketa			
Ema. Kop	Usurbil-Hernani		Atzeratuta	Ligila	Ekaitz-Ruiz/Estefano-Ezeiza	Kiroldegia	Gaur 16:30
1. Errej.	Allerru-Hernani	Plazeta	Gaur 16:00	Ligila	Aitzol-Urko/Imaz-Gonzalez	Kiroldegia	Gaur 17:30
Gaz. Naz.	Hernani-Cruces	Zubipe	Bihar 17:15	Ligila	Arluziaga-Esteban/Oiarzabal-P	Kiroldegia	Gaur 18:30
Gaz. Oh.	Aretxabaleta Hernani	Ibarrak	Gaur 15:30	EHko, Gipuzkoako eta Udaberri txapelketak			
Kad. Oh.	Hernani-Lagun Onak	Zubipe	Gaur 12:00	Kadeteak	Erdozio-Arregi/Elgoibar	Oñati	Gaur 16:30
Kad. 2.	Hernani-Usurbil	Zubipe	Gaur 16:45	Jubenilak	Andazpe/Arrieta-Zurutza	Usurbil	Gaur, 19:00
Haur Oh.	Hernani-Touring	Zubipe	Bihar 11:00	Lauterdiko txapelketa			
ERRUGBIA				Kadeteak	Muñoa-Ezeiza	Kiroldegia	Gaur 15:00
Sen.Kopa	Hernani-Sestao	Landare	Bihar 11:00	Kadeteak	Barrutia-Artola	Kiroldegia	Gaur 15:00
Jubenila	Elorrio-Hernani	Asti	Gaur 15:30	Kadeteak	Barrantes-Arrieta	Kiroldegia	Gaur 15:00
Kadeteak	Hernani-Eibar	Landare	Gaur 11:00	Erremontea - Galarreta			
Infantila	Aragon-Gipuzkoa	Tarazona	Gaur 11:00	1)	Matxin IV-Ion/Odriozola-Agirrezabala	Galarreta	Gaur 16:00
Alebina	Aragon-Gipuzkoa	Tarazona	Gaur 11:00	2)	Ezkurra-Lizaso	Galarreta	Gaur 17:00
BOLEIBOLA				3)	Zeberio II-Aizpuru/Altuna II-Iriarte	Galarreta	Gaur 18:00
Kadeteak	Euskadiko txapelketa	Kiroldegia	Gaur 12:00	4)	Zeberio I-Lander/Matxin III-Badiola	Galarreta	Gaur 19:00
Kadeteak	Euskadiko txapelketa	Kiroldegia	Gaur 16:00				
Kadeteak	Euskadiko txapelketa	Kiroldegia	Gaur 17:30				

## ■ HITZ BITAN

### ✓ ERREMONTA

**Lizaso eta Ezkurra aurrez aurre gaur.** Matxin II.ari omenaldia egingo zaio gaur Galarretan, 16:00etatik aurrera. Bigarren partiduak punta puntakoa da: Lizaso eta Ezkurra doneztebearrek neurtuko dituzte indarrak buruz buru. Faborito Ezkurra da, baina, Lizasok badaki *Kotetori* txapela kentzea zer den eta irabazteko esperantzak baditu gaur.

### ✓ PALA TXAPELKETA

**Partiduak gaur arratsaldean.** Hernaniko pala txapelketako partiduak dira gaur kiroldegian. 16:30etan, Ekaitz-Ruiz/Estefano-Ezeiza; 17:30etan, Aitzol-Urko/Imaz-Gonzalez; eta 18:30etan, Arluziaga-Esteban/Oiarzabal-Gil.

### ✓ AUB

**Firma bilteta gaur Udaletxean.** Autodeterminazio-rako Bilguneak firma biltzea deitu du gaurko, datozen Foru hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko. Firma biltzea gaur eguerdiko 12:00etan egingo da Udaletxean.

### ✓ HITZORDUAK

**Firma biltzen gaur Plaza Berrian.** Hitzorduak taldea firma biltzen ari da datozen hauteskundeetan idea, pertsona eta proiektu guztiek tokia izan dezaten. Gaur egingo dute azken firma biltzea, 12:00etan Plaza Berrian. Firma biltzea bukatuta Udal Plenora eramatekoa dute mozio bat.

### ✓ TXATARRA KOADRILA

**Meza hildako lagunen alde.** Txatarra koadrilak meza aterako du bihar hildako koadrilakideen alde, Juan Bataiatzailea Parrokian, goizeko 11:00etan. Francisco Del Puerto *Patxito*, Felipe Sagarna *Zapa*, Jose Mari Soraluze *Atano*, Jose Manuel Arana, Esteban Iriarte, Joseba Andoni Urkia, Joseba Armendariz eta Severo Aristorenaren oroimenezko meza izango da. □

## ESKERTZA

### Esteban Etxegoien Larrarte

Martxoaren 27an hil zen

Estebanen senitartekoen eskerrak eman nahi dizkizuegu, egun hauetan gurekin egon zaretenoi eta hiletara etorri zineten guztioi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO.

Hernanin 2003ko apirilaren 12an

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- ▶ Gaez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738

## IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 08:00-12:00etara eta 16:00-20:00etara. ☎ 609761085 (20:00etatik aurrera deitu).

Garajea salgai Urbieta kalean: ☎ 943 55 20 81

Etxebizitza eta lokaletarako mota guztietako instalazio elektrikoak egiten dira (segurtasuna, energi aurrezte, erosotasuna,...). Deitu: ☎ 627 51 97 76

Haur ra zaintzeko neska euskalduna behar dugu. Ordeztua: Astelehenetik larunbatera 8:00etatik 16:00etara. Deitu: ☎ 943 55 20 98 (20:00etatik 21:00etara)

Etxea salgai Zikuñaga auzoan: 4 logela, sala, sukaldea eta komona. Prezioa: 150.000 euro. Interesatuak deitu: ☎ 656 73 60 93 (17:00etatik aurrera).



## Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AUERRERA

ERREMONTA JAIALDIA: **MATXIN IIIARI AGURRA**

1. partiduak: Matxin IV - Ion / Odriozola - Agirrezabala
2. partiduak: **Buruz burukoa: EZKURRA - LIZASO**
3. partiduak: Zeberio II - Aizpuru / Altuna II - Iriarte
4. partiduak: Zeberio I - Lander / Matxin III - Badiola

# NECTAR

Kosmetika naturala aurpegi eta gorputzerako.  
Relajazioa, masajea, sauna eta jakuzia.



Sonia eta Ruth, NECTAR zentro berriko arduradunak.

Zure azala leun eta gozo mantendu nahi duzula?. Nectarren kosmetika erabat naturala eskaintzen dizugu: aurpegi eta gorputzerako krema naturalak, belarrekin egindako txanpuak, jaboia, hidranteak eta abar, denak ere erabat produktu naturalekin eginak. Nectarren **etxe-barrua goxatzeko lurrinak** ere aukeran daukagu. Nectarren azaleko arazoentzat ere badauzkagu tratamendu bereziak: psoriasis, dermatitis, ekzema, aknea, azal lehorra eta abar. **Relajatu** eder bat hartu nahi duzula? Nectarren **masajea, sauna,** eta **jakuzi** zerbitzua ere badauzkagu. **Depilazio** zerbitzua ere eskaintzen dugu Nectarren.

**Zatoz eta ezagutu NECTARren Hernaniko frankizia berria.**

Kale Nagusia 23 - HERNANI -  
Tel.: 943 55 74 67